

MONDRAGOI-KO EUSKAL-FĒSTAK

EUSKAL-ITZ-JOSTALDIENEGINTZA

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Mondragoira, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa izan dan, aurten, izkribatzalle eta musikarieren indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiarekiñ esamiñatu ondorean aurkeztu diran moldaera guziak, zeñen agiriya egiten dan urteoroko Oroimengarriyan, irabazi dituzte *sariyak*, izkribatzalleen artean: On Pedro María Otañok bi, Kubakogure *anayni eta Aitona gizagaisoa* izendatzen diranagatik; On Felipe Arrese Beitiak *Uri kondaira andiko bat* izentzat duenagatik. Irabazi dituzte *aldeerak* On Franzisko Lopez Alén, On Domingo Agirre, eta On José Artolak, *Illunabar bat, Agure kanta eta Kuban gudan da biltzan España-tarrai* izentzat dituztenen gatik.

Musikarieren artean *sariya* irabazi du On Julian Martinez Billar-koak *Nere Euskal-Errirá* azalkaitzat daukan zortzikoagatik. Irabazi dituzte *aldeerak* On Migel Oñate eta On Marzelino Galatas-ek, *Erresill* eta *Zezen yayua* izentzat dituzten zortzikoagatik.

Mondragoin, 1896-ko Uztaren 6-an.

BATZARREAREN IZENEAN:

Dianagusia,
ALFREDO DE LAFFITTE.

Goarpelaria,
ANTONIO ARZÁC.